

Artea

Graffiti

Jazarpenetik, hala moduzko onarpenera

1980ko hamarkada amaieran Gasteizen lehen graffitiak egiten hasi zirenetik, Euskal Herriko hormak museo erraldoi dira. Betidanik mugimendu jazarria izan bada ere, apurka gizartearen eta erakundearen onarpena jasotzen ari da. Horretaz mintzatzeko, hainbat graffitigileren testigantzak gure egin ditugu, eurak baitira eguneroko borroka horretan lanean ari direnak.

LANDER MUÑAGORRI

Argazkiak: Axier López

HISTORIAURRETIK HASITA, gizakiok beti izan dugu gune publikoetan idazteko eta marrazkien bitartez gure bizimoduaren berri emateko sena. Santimamiñe edota Ekaingo kobetatik hasi, eta gaur egun Euskal Herrian egiten diren graffitietatik igarota, belaunaldi ugariaren testigantzak denok ikusteko moduan daude kobazulo eta kaleetako hormetan. Arbasoen irudiak konplexuago bilakatu dira orain, margotzeko erak ere aldatu diren heinean; spray eta aeroso-

lek pintura arkaikoari lekua kendu die. Dena da diferentea, baina funts nagusiak hor jarraitzen du: gure existentzia ezagutaraztea.

Euskarazko graffiti lehian

Graffiti mugimendu globala da, hizkuntza guztien jabe, ez dauka mintzaira konkreturik. Lekuan lekuko hizkuntza, eta idazle bakoitzaren errealitate linguistikoa gailentzen dira graffiti bat hizkuntza batean edo bestean



idazteko unean. Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak hein horretan, Euskal Herrian margotzen duten gazteei bideratuta, hizkuntza jarri nahi izan dio graffitiari. Euskara, noski.

Orain dela sei urte sortu zen Sprakada Euskal Herriko graffiti txapelketa bakarra. Topaguneko kideak ohartu ziren kaleak margotzeko joera euskal gizartearen sustraitzen ari zela, eta euskal graffitigileentzako lehiaketa antolatzea otu zitzaizen. Sonia Perez Anguera Topaguneko gazte saileko arduradunaren hitzetan, “graffitigile euskaldun ugari dago, baina kanpotik ekarritako adierazpidea denez, gaztetxoek askotan ez dituzte graffiti eta euskara erlazionatzen. Gure asmoa, hortaz, graffitigile euskaldunak gaztetxoaren eredu bezala jartzea izan zen”.

Txapelketak gazteen artean euskara bultzatzeko balio izan badu ere, graffitiak merezi duen onarpenaren alde ere egin dute lan. Parte-hartzaileek euren zirriborroak aurkezten dituzte lehiaketara, eta behin epaimahaikideen bahetik igarota, finala egiten dute. “Lehenengo lehiaketa antolatu genuenean, graffitiak egiteko 700 metro karratuko horma lortzea zaila izango zela ikusten genuen, baina orain edizio batekin amaitu orduko, udalak guregana etorri izan dira finala euren herrian egin dadin eskatuz” azaldu du Perez Anguerak. Lehiaketaren pedagogia lana azpimarratu du Sprakadako antolatzaileak, izan ere, finala egin izan den herrietan graffitiarekin lanean jarraitu dute, gazteei margotzeko hormak utziz, graffiti tailerrak antolatuz edo muralak berrituz. “Igarotzen garen lekuan aztar-na uzten dugu” ondorioztatu du Perez Anguerak.



**Egoitz Konte
Ojodecuervo eta
Garikoitz Arregi Say
goiko irudian.
Erdikoan, Sonia Perez
Anguera Topaguneko
gazte saileko
arduraduna. Lerro
hauen gainean berriz,
Igor Rezola Dizebi.**

Onarpen mugatua

Urtetan mugimendu jazarria izan da graffiti, baina orain onarpena jasotzen ari da gizarte eta erakundearen aldetik. Mugatua, hori bai, graffiti mota batzuk –firmak, trenak margotzea...– “garai batean bezain esetsiak” baitaude Igor Rezola *Dizebi* graffitigile beasaindarraren hitzetan. Berak ez du aparteko arazorik izan, egiten dituen muralak jende askoren onarpena jaso baitute. Gipuzkoan, Goierri aldean, ezagunak dira dagoeneko *Dizebi* egiten dituen aurpegiak. Mural horietako bat marrazten ari dela lagundu diogu, eta halako batean aldamenetik igaro den Ertzaintzaren patruila-autoa gelditu da; atea zabaldu, eta “¿Ya estás pintando otra vez? Tienes todo lleno de graffiti, ¿eh? Bien, bien, mientras no sean otras cosas...” esanda alde egin dute. Ezaguna denez, margotzeko ez da ezkutatzeko, egun argiz denek begi bistan egiten du lan. “Herri txikietan margotzea errazagoa da, denek baitakite norena den lan bakoitza” dio Garikoitz Arregi *Say* berriztarrak.

Donostian ordea ez da hala korrik gertatzen. “Udalak graffitiarekin ez du tolerantziarik erakusten, eta edozer gauza margotzeagatik 300 eta 3.000 euro arteko isuna jaso dezakezu” azaldu du Inaki Bocos Old School hip hop dendako arduradunak. Gipuzkoako hiriburuko erdialdean apenas graffitirik ikusten den. Graffitigileek inguruko auzoetara edo herrietara joan behar izaten dute. “Horrek guztiak Donostian mugimendu apalagoa egotea dakar” dio Bocosek.

Gasteizen berriz, diferenteak dira gauzak. Euskal Herriko graffitiaren sehaska da, eta tradizioz, han margotzen da gehien. “Urtetan margotu izan du hemen jendeak, eta gizartearen graffiti mugimendua nahiko onartua dago” azal-



du du Egoitz Konte *Ojodecuervo* margolariak. Hori dela eta, “Gasteizen muralak gehiago egiten dira, egun oso batez leku berean margotzeko aukera dagoelako”. Lekuan lekuko errealitatearen arabera, herri edo zonalde bakoitzean graffiti mota diferenteak egiten direla zehaztu du gasteiztarrek: firmak, muralak...

Bizkaia eta Nafarroako hiriburuetan ere graffitiak leku nabarmena dauka. Iruñean, halere, azken denboraldian nekezagoa omen da margotzea Xabi *Nesh* idazlearen hitzetan, udala zorrotzago jartzen ari baita. Horrek inguruko herrietan gero eta graffiti gehiago egotea ekarri du.

Dena ez da debeku

Graffitiarekin herri bakoitzeko agintariek jarrera ezberdina hartu dute, margotzen dabilena zigortuz batzuetan, eta besteetan, bakean utziz. Baina bi aukera horietatik landa, badira zenbait udal bestelako apustua egiten dutenak: graffitigileak kontratatzea, alegia.

Halakoa da Alex Mosterin *Kokakolo* leioarraren kasua. 2002 urtean hasi eta 2007 arte, Mungiako Udalaren pentzutan egon zen muralak marrazten. “Hondatutako hormei bestelako itxura emateko asmoarekin kontratu ninduten. Udalak esaten zidan non margotu eta zein gairi buruz”. Besteen artean Lauaxeta olerkigilearen jaiotzaren mendeurrenean haren omenezko mural bat egin zuen, baita herri kirolen inguruko margoak ere, besteak beste. Baina pertsona bat kaleak margotzeko kontratatzeaz gain, gazte mugiarrengan ere pentsatu zuen udalak: “Ni joan nintzenean, horma zuri batzuk utzi genituen herriko graffitigileek margo zezaten”. Zarpaildutako guneak biziberritzeko asmotan Ermua, Erandio edota Berangon ere halako eskaerak egiten dituzte lantzean behin udalek.

Horrelako ekimenak, edonola ere, ez dira egunero ikusten. Eta muralak egitetik bizi den enpresa? Hori ere ez da ohikoena, baina DKmuralismo bilbotarrak horretan dihardu. San Frantzisko auzoan dauka jatorria enpresak. Zonalde urbano eta degradatuei bizia emateko,

formatu handiko muralak egiteko asmoarekin jaio zen. Pentsa litekeenaren aurka, garbi utzi digute ez direla graffitigile talde bat, muralgileak baizik, arte ederretan lizentziatutako profesionalak.

1980ko hamarkadan Bilboko Udalak zarpaildutako zonaldeak biziberritzeko ekimenari abiatu zuen, baina ez zuten esperotako emaitzarik lortu. Ondoren sortu zen DKmuralismo, kontratu bidez muralak egiten enpresa aitzindaria. *Badak* beraiekin egiten du lan, eta aipatu digunez, “zonalde degradatuak muralen bidez konpondu nahi dituzten erakundeek euren ezina azalean uzten dute, eraldaketa erradikalak egiteko gai ez direla erakusten baitute”. Hala ere, lana duten heinean, “inguru triste bati itxura pixka bat eman besterik ez dugu egiten”. Ikustekoak dira talde horren lanak, ez kalitateagatik soilik: hedadura handiak hartzen dituzte; fatxada edo eraikin osoak, sarritan.

Gorakada nabarmena

Graffiti modan dagoen mugimendua denik, inork gutxi ezeztatuko du gaur egun. Edozein herritan topa daiteke eszena bat. Hitz egin dugun graffitigile guztiek onartzen eta azpimarratzen dute hori. Gorakadaren arrazoiez galdetzean ordea, ez dakite erantzuten. “Moda kontu” bezala hartzen du, esaterako, *Dizebik*. Baina “beste edozein azpikulturatan gertatzen den bezala, sistemak bere egin du graffiti, etekina atera ahal izateko”. Gainera, hala moduzko onarpena jaso duenez, “erakundeek aldetik ikastaroak eta antzeko ekintzak antolatzen hasi dira”. Baina hori guztia kalean graffitiak egiteko borrokatu dutenengatik izan dela azpimarratu du.

Arrazoiak arrazoi, kaleko arte eskaintza honek geroz eta jarraitzaile gehiago dauka. Mugimendu jazarria izatetik, azken urteetan balantza graffitigileen aldera mugitzen hasi da apurka-apurka, erabateko onarpena izan arteko trantsizioan badago ere. Pausoek bide horretatik jarraituko ahal dute! ■

www.argia.com/multimedia
helbidean, gai honi buruzko bideoa.

